

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO ETA VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA ETA SAN TELMO MUSEOA, SA SOZietateetako LANGILE LAGUNTZAILEEN ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA

- 1. KONTRATUAREN XEDEA**
- 2. ERAKUNDE KONTRATUGILEAK ETA KONTRATAZIO ORGANOAK**
- 3. ESLEIPEN PROZEDURA**
- 4. ALDAERAK**
- 5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA**
- 6. IRAUPENA**
- 7. LIZITAZIOKO GEHIENEN PREZIOA ETA PREZIO UNITARIOAK ETA KONTRATUEN BALIO ZENBATETSA**
- 8. PREZIOA ORDAINTZEA**
- 9. PREZIOAK BERRIKUSTEA**
- 10. PUBLIZITATEA**
- 11. BEHIN BETIKO BERMEA**
- 12. GAITASUN BALDINTZAK**
- 13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**
- 14. BALORAZIO IRIZPIDEAK**
- 15. EBALUAZIO BATZORDEA**
- 16. PROPOSAMENAK IREKITZEA**
- 17. KONTRATUAK ESLEITZEA**
- 18. KONTRATUAK HOBETZEA ETA FORMALIZATZEA**
- 19. KONTRATUEN ARDURADUNA**
- 20. KONTRATUAK GAUZATZEA**
- 21. FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK**
- 22. DATUEN BABESA**

23.KONFIDENTZIALITASUNA

24.ASEGURUAK

25.ZIGORRAK

26.KONTRATUA LAGATZEA

27.AZPIKONTRATAZIOA

28.KONTRATUAREN ALDAKETAK

29.ENPRESA ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA

30.KONTRATUA ETETEA

31.KONTRATUA DEUSEZTATZEA

32.ARAUBIDE JURIDIKOA

33.JURISDIKZIOA

I. ERANSKINA. ABAL EREDUA

II. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BITARTEKOA AUKERATZEA

III. ERANSKINA. AITORPEN ERANTZULEA

IV. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONOMIKOKO EREDUA

V. ERANSKINA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

VI. ERANSKINA ADIERAZPENEN GUTUNAREN EREDUA, LIZITATZAILEAK ESKATZEN DEN SAILKAPENA ZIURTATZEKO ETA/EDO GUTXIENEO GIZA BITARTEKOA KONTRATURA ATXIKITZEKO KONPROMISOA BETETZEKO BESTE ENTITATE BATZUEN SAILKAPENA ETA/EDO GIZA BITARTEKOA ERABILI BEHAR BADITU

VII. ERANSKINA ASEGURU ENTITATEAREN ZIURTAPENA

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO ETA VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA ETA SAN TELMO MUSEOA, SA SOZietateetako LANGILE LAGUNTZAILEEN ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazioaren xedea da beharrezkoak diren "laguntza-langileen" zerbitzuak eskaintzeko enpresa bat aukeratzea, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO ETA VICTORIA EUGENIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA SOZietateetara gaur egun atxikita dauden eta etorkizunean atxikiko diren zentroetan zein horietatik kanpo garatzen diren kultur jarduerak (ekitaldiak, jardunaldiak, kontzertuak, ikuskizunak, eta abar) antolatzeke, bai eta beste zentro batzuetan eta kanpoan aipatutako erakundeek garatutakoak antolatzeke ere, Orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian aurreikusitakoaren arabera. Kultur jarduera horiek jarraian aipatutako loteetan banakatu dira:

1. LOTEA.- Esparruetan (antzoki, kultur zentro, museo, eta abarretan) sarrera kontrolatzeko zerbitzuak eta pertsonen arreta emateko zerbitzuak

Honako kategoria hauetan bereizi dira zerbitzuak:

- a) Aretoko laguntzailea (kokapena, laguntzaileak, atezaintza eta abar)
- b) Aretoko arduraduna

2. LOTEA.- Pertsonen arretarako zerbitzuak eta materialak ibilgailu batekin / gabe mugitzeko zerbitzuak (erakundeak jarritako ibilgailua):

Honako kategoria hauetan bereizi dira zerbitzuak:

Artista eta gonbidatuen laguntzaileak eta ekipoak eta bestelako tresnak garraiatzeko gidariak.

3. LOTEA.- Salmenta-zerbitzuak eta leihatiletako arreta-zerbitzua

Honako kategoria hauetan bereizi dira zerbitzuak:

- a) Txartelak saltzeko laguntzailea, merchandising, matrikulazioak, eta abar.
- b) Salmenten arduraduna / Txartel-saltzaileak

4. LOTEA.- Sarrerak kontrolatzeko zerbitzuak eta kaleko jardueretan materialak batetik bestera mugitzeko zerbitzuak

Sarrerak kontrolatzea eta kalean garatzen diren jardueretan materialak batetik bestera mugitzea.

5. LOTEA.- Harrera eta informazioko zerbitzuak

DONOSTIA KULTURAREN zentroetan edo berak antolatzen dituen jardueretan harrera egitea eta informazioa ematea.

Lizitatzailleek lote baterako, birako edo nahi dituzten guztietarako eskaintzak aurkez ditzakete.

Donostia Kulturak kudeatzen dituen instalazioetako (antzokiak, kultur etxeak, liburutegiak, museoa eta abar) berezko jarduerak antolatzen dituzten enpresek eta erakundeek beren laguntzaileak eta gainerako laguntza-langileak enplegatu ahal izango dituzte, Donostia Kulturak baimendu eta gero. Donostia Kulturak kontratatuko ditu esparruko eta bere erabiltzaileen segurtasuna ziurtatzeko gutxieneko ekipoak eta aipatutako enpresen eta erakundeen kontura egingo du

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 120. artikuluari jarraituz, Donostian (Konstituzio Plaza, 1) kokatuta dauden bulegoetan, aplikatzekoa den hitzarmenaren arabera subrogazioak eragina duen lote bakoitzaren xede diren zerbitzuak gaur egun eskaintzen dituzten enpresa kontratisten arabera langileen kontratuen baldintzen inguruko informazioa emango dute.

Lote bakoitzaren xede diren zerbitzuak gaur egun eskaintzen dituzten enpresek emandako informazio hori aurretik aipatutako SPKLTBaren 120. artikuluan aurreikusitakoa betez, eta subrogatzeko obligazioa egotea eta honen irismena aurretik juzgatu beharrik gabe eskainiz.

Kontratuaren xedea SPKLTBaren II. Eranskinaren 26. kategorian aipatzen diren zerbitzuen artean sartuta dago; baina ez dago, haatik, araupetze harmonizatuari lotuta, balio zenbatetsia badu ere.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEAK ETA KONTRATAZIO ORGANOA

2.1.- ERAKUNDE KONTRATUGILEAK

Erakunde kontratugileak DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA, VICTORIA EUGENIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA dira.

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK berak bakarrik egingo ditu ekonomikoki eskaintza onuragarriena aukeratzeko eta kontratuak esleitzeko hiru erakunde kontratugileekin sinatuko diren kontratuak prestatzeko lanak.

Hala ere, esleipena argitaratu eta esleipendunei dagokien jakinarazpena egin eta gero, eta esleipendunak/ek agiri honen **17. klausulan** eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, klausula horrek ezartzen duen epearen barruan bi kontratu egingo dira, eduki berarekin, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA SA sozietateekin.

Gauzak horrela, lizitazio honen xede diren zerbitzuak DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOTIK edo SAN TELMO MUSEOA, SA eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA sozietateetatik eskatu eta kontratatu ahal izango dira eta eskaera egiten duen aldeari fakturatuko zaizkio eta berak ordaindu beharko ditu.

Kontratuak sinatzen diren unetik, eskubide eta betebeharren araubidea, kontratuak gauzatzeko eta iraungitzeko faseei dagokien guztian, hiru erakunde kontratugileetako bakoitzari dagokiola ulertuko da.

Beraz, orri hauetan DONOSTIA KULTURARI egindako edozein erreferentzia generiko honako hauei lotuta ulertu beharko da:

- DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOari, hiru erakunde kontratugileetako bakoitzarekin sinatuko diren kontratuak prestatu eta esleitzeari buruzko jardunei dagokienean.
- Bereizi gabe, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA hiru erakundeetako edozeini, kontratu bakoitza formalizatu eta sinatzeari dagokionean, eta horiek gauzatu eta iraungitzeko faseekin lotutako guztian.

2.2 KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratuak prestatzeko, eskaintza ekonomiko abantailatsuena aukeratzeko eta kontratuak esleitzeko prozeduraren ondorioetarako, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOaren lehendakaria da Kontratazio Organoa.

Kasuan-kasuan kontratuak formalizatu eta izenpetzeko ondorioetarako, Kontratazio Organoa hiru erakunde kontratugileetako bakoitzarena izango da.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Prozedura ireki bidez esleitzeko dira kontratuak, Orri honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

4. ALDAERAK

Ez dira onartzen.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Honako hauek edukiko dute kontratu-izaera, esleipenaren ondoren egiten diren kontratuez gain: orri honek, baldintza teknikoen orriak eta esleipendunak/ek aurkezten ditu(zt)en eskaintzak.

Enpresa esleipendunak aipatutako agiri guztiak sinatuko ditu, kontratuak formalizatzen direnean, guztiak onartzen dituztela egiaztatuz.

6. IRAUPENA

Kontratuek hiru urte iraungo dute, formalizatzen diren egunaren biharamunetik hasita; urtean bi luzapen egin daitezke jarraian (lehenengoa bi urterakoa izango da eta urtebeteko luzapena izango da bigarrena), erakunde kontratugileak/ek bakarrik eskatzen badu/te ere. Ildo horretatik, kontratuak gehienez ere sei urteko iraupena edukiko du, luzapenak barne hartuta.

Luzapenaren jakinarazpena kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago egingo da gutxienez eta derrigorrezkoa izango da enpresa esleipendun(ar)entzat.

7. KONTRATUEN PREZIOA, LIZITAZIOKO GEHIENEO PREZIOAK ETA BALIO ZENBATETSIA ZEHAZTEA

Lizitatzailleek laguntza-langileen zerbitzuak eskaintzeko pertsona bakoitzagatik eskainiko diren denbora-unitateei (egunak edo orduak) dagozkien prezio unitarioak zehaztuko dituzte aurkezten dituzten proposamen ekonomikoetan.

Ondorio horietarako, honakoak izango dira gehieneko prezio unitarioak -BEZa kanpo-, eta dagokien haztapena:

LOTEA	KATEGORIA	GEHIENEO PREZIO UNITARIOA	HAZTATZE A
1. LOTEA	a) Aretoko laguntzailea (kokapena, laguntzaileak, atezaintza, eta abar)	18 €/ordua	% 80
	b) Aretoko arduraduna	23 €/ordua	% 20
2. LOTEA	- Artista eta gonbidatuen laguntzaileak eta ekipoak eta bestelako tresnak garraiatzeko gidariak.	170 €/eguna	% 100
3. LOTEA	a) Txartelak saltzeko laguntzailea, merchandising, matrikulazioak, eta abar.	18 €/ordua	% 80
	b) Salmenten arduraduna / Txartel-saltzaileak	21 €/ordua	% 20
4. LOTEA	Sarrerak kontrolatzeko langileak eta materialak batez bestera mugitzeko langileak	21 €/ordua	% 100
5. LOTEA	Donostia Kulturaren zentroetan edo berak antolatzen dituen jardueretan harrera egiteko eta informazioa emateko langileak	22 €/ordua	% 100

Lizitatzailleek gehieneko prezio unitario horiek baino prezio baxuagoak adieraz ditzakete egiten dituzten proposamen ekonomikoetan.

Ezin izango zaio kosturik egotzi DONOSTIA KULTURARI lote bakoitzaren Zerbitzu Arduradunak zerbitzuak eskaintzeko behar izan dituen orduen kostuagatik.

Eskaintzen diren prezioen barruan ulertzen dira zerbitzuek berezkoak dituzten kontzeptu guztiei dagozkienak eta zerbitzuak eskaintzeko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldadak eta Gizarte Segurantzak, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauzez eta jai-egunetan egiten diren lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, uniformeak, istripu

indibidualetarako aseguruak, eta abar), bai eta zerga (BEZa kanpo), aseguru, lizentzia, baimen eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

Lizitatzailleek kontu sail independente batean adieraziko dute DONOSTIA KULTURAK jasan beharko duen BEZa.

Enpresa esleipendunak/ek ordainduko ditu/zte Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren deialdiaren iragarkia argitaratzearen ondoriozko gastuak eta kontratuak formalizatzean sortzen direnak.

Enpresa esleipendun bat baino gehiago egonez gero, iragarkia argitaratzeko gastuak proportzionalki banatuko dituzte, bakoitzari esleitutako loteen balio zenbatetsiaren arabera.

SPKLTBaren 88. artikulua ondoietarako, kontratuen balio zenbatetsia **3.447.603 eurokoa** da, lote bakoitzean -luzapen posibleak barne- modu honetan xehatuta:

1. LOTEA.- Esparruetan (antzoki, kultur zentro, museo, eta abarretan) sarrera kontrolatzeko zerbitzuak eta pertsonen arreta emateko zerbitzuak: **1.740.222 euro**

2. LOTEA.- Pertsonen arretarako zerbitzuak eta materialak ibilgailu batekin mugitzeko zerbitzuak: **565.488 euro**

3. LOTEA.- Salmenta-zerbitzuak eta leihatiletako arreta-zerbitzua: **191.268 euro**

4. LOTEA.- Sarrerak kontrolatzeko zerbitzuak eta kaleko jardueretarako materialak batetik bestera mugitzeko zerbitzuak: **792.792 euro**

5. LOTEA.- Harrera eta informazioko zerbitzuak: **157.833 euro**

Balio zenbatetsi hori SPKLTBaren 88.5 a) artikulua arabera kalkulatu da. Hau da, kontuan hartu da aurreko hamabi hilabeteetan balio beragatik esleitutako antzeko kontratuen benetako balioa, kontratua hasi eta ondorengo hamabi hilabeteetarako aurreikusitako kantitateen aldaketen arabera egokituta, eta kontratuak irauten duen denbora guztian luzatu da, luzapenak barne hartuta.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Hileroko ordainketak egingo dira, enpresa esleipendunak/ek kasuan-kasuan dagokion/en faktura aurkeztu eta gero.

DONOSTIA KULTURARI eskaintzen zaizkion zerbitzuen prezioa, zinez eskainitako ordu eta egun kopurua eskainitako prezio unitarioen gainean aplikatzearen emaitzazkoa izango da.

Kasu horretan, 3 ordukoa izango da fakturatuko den gutxieneko ordu kopurua.

Enpresa esleipendunak/ek faktura hilero luzatuko beharko du/te, kasuan-kasuan zerbitzuak eskaini diren hilabetea amaitu eta hurrengo hilabeteko hamabosgarren eguna baino lehen.

Faktur(ar)ekin batera albaran bat aurkeztuko da. Bertan adieraziko dira enpresa esleipendunek aurreko hilabetean betetako ordu eta egun kopurua, hala badagokio. Faktur(et)an, halaber, antolatutako ekitaldiak eta zerbitzuak eskaini dituzten hilabeteko egunak zehaztuko dira.

DONOSTIA KULTURAK eskainitako zerbitzuen eta erabilitako materialen prezioa ordainduko du, zerbitzuak eskaini diren hilabetea amaitu eta hogeita hamar egun naturaleko epean, betiere faktura luzatu bada lehen aipatutako epean eta ontzat eman bada.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dagokio

10. PUBLIZITATEA

Lizitazio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Kontratuen esleipena DONOSTIA KULTURAREN kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratuen formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Profil horretara sartzeko honako web-orri honetara jo: www.donostiakultura.com.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratu(ar)en enpresa esleipendunak/ek behin betiko berme bakar eta orokor bat eratuko du/te hiru erakunde kontratatzaileen alde, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela ziurtatzeko. Berme hori kontratuen kalkulaturako guztizko balioaren % 1ekoa izango da, BEZ kanpo.

Aipatutako hiru erakunde kontratatzaileetako batek eskaera egiten badu, berme hori diru bihurtuko da.

Eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkezten du(t)en enpresa lizitatzailerak/ek hamar egun baliodun edukiko ditu/zte aipatutako bermea eratzeko, Kontratazio Organoaren eskakizuna jaso eta biharamunetik hasita.

SPKLTBaren 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan osatu daiteke bermea.

Eskudirutan eratzten bada, 2095 0611 09 1061519723 Kutxabank-eko kontu korrontean egingo da.

Abal moduan eratuz gero, agiri honi **I. eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren arabera izango da.

Bermea eratu dela ziurtatzeko bitarteko elektronikoak erabili daitezke.

Bermea SPKLTBaren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme-epea igaro ondoren eta enpresa esleipendunak/ek kontratuko betebeharrak guztiak bete dituztenean.

Bermea(k) itzultzeko, erakunde kontratugileak aldeko txostena eman beharko du aurretiaz.

Behin betiko bermearen gainean enpresa esleipendunari/ei eska dakizkiokeen/ekeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, enpresa esleipendunak/ek bermea berrezarri edo handitu beharko du/te, dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta hamabost egun baldioduneko epea izango du/te eta, hala egin ezean, kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira.

Kontratuen aldaketaren baten ondorioz haien prezioa aldatzen bada, enpresa esleipendunak haien prezio berregokitu egin beharko dute, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezaten. Enpresa esleipendunak hamabost egun naturaleko epea izango du bermea(k) egokitzeko, aldaketa erabakia(k) jakinarazten diren datatik aurrera.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBaren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

12. GAITASUN BALDINTZAK

DONOSTIA KULTURArekin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, jarduteko gaitasuna duten, kontratatzeke debekurik ez duten eta behar bezala sailkatuta dauden Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoak.

Ezin izango dute lizitazioan esku hartu kontratuaren zehaztapen teknikoak edo prestaketa dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresek, baldin eta parte hartze horrek lehia librerako murrizketak eragin baditzake edo gainerako enpresa lizitatzailerikiko tratua pribilegiatua ekar badezake.

Enpresa lizitatzailerik, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko beharrezkoa den lanbide edo enpresa gaikuntza eduki behar dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izateko aukera izango dute, baldin eta, kontratuko prestazioak haiei berez dagozkien helburu, xede edo jardura esparrukoak direnean, haien estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

Nolanahi ere, DONOSTIA KULTURArekin kontratatzeke ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetakoen enpresa ez espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan-kasuan zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBaren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaidea izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunetik kanpoko estatueto pertsona fisikoek edo juridikoek jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitako enpreko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

DONOSTIA KULTURArekin kontratatatu ahal izango dute horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBaren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Honako sailkapen hau ziurtatu behar dute lizitatzailleek lote bakoitzerako. Lizitatzaille batek lote baterako baino gehiagorako egiten badu eskaintza, balio zenbatetsi altuena duen loteari dagokiona aurkeztuko du.

1. LOTEA.- Esparruetan (antzoki, kultur zentro, museo, eta abarretan) sarrera kontrolatzeko zerbitzuak eta pertsonen arreta emateko zerbitzuak: L Multzoa, 6. azpimultzoa, B kategoria.

2. LOTEA.- Pertsonen arretarako zerbitzuak eta materialak ibilgailu batekin mugitzeko zerbitzuak: L Multzoa, 6. azpimultzoa, A kategoria.

3. LOTEA.- Salmenta-zerbitzuak eta leihatiletako arreta-zerbitzua: L Multzoa, 6. azpimultzoa, A kategoria.

4. LOTEA.- Sarrerak kontrolatzeko zerbitzuak eta kaleko jardueretarako materialak batetik bestera mugitzeko zerbitzuak: L Multzoa, 6. azpimultzoa, A kategoria.

5. LOTEA.- Harrera eta informazioko zerbitzuak: L Multzoa, 6. azpimultzoa, A kategoria.

Ez dute sailkapena ziurtatu beharko Europar Batasuneko kide diren enpresa ez-espainolek. Europar Batasuneko kide diren enpresa ez-espainolek Orri honetan zerbitzuen kontratataren sailkapen lortzeko beharrezkoak diren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dituela ziurtatuko dute.

Horrez gain, lizitatzailleek konpromisoa hartu beharko dute, kontratua gauzatzeko honako giza bitarteko hauek atxikitzeko:

- Gutxienez eta lizitatzen den lote bakoitzagatik, Baldintza Teknikoen Orriko **4. Klausulan** adierazten diren langileek bertan aipatutako baldintzak bete beharko dituzte.
- Lizitatzen den lote bakoitzagatik, kontratuaren arduradun bat. Honek Baldintza Teknikoen Orriko **4. Klausulan** adierazitako baldintzak bete beharko ditu. Enpresa batek eskaintza bat lote batean baino gehiagotan

(nahiz lote guztietan ere) aurkeztuz gero, kontratu arduradun bakarra proposatu ahal izango du.

Konpromiso hori kontratu-betebeharra izango da SPKLTBaren 223. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Hortaz, berori urratuz gero, DONOSTIA KULTURAK kontratua deuseztatzeko eskubidea izango du.

Eskatutako sailkapena eta/edo kontratura bitartekoak atxikitzeko konpromisoa ziurtatzeko, beste erakunde batzuen sailkapena eta/edo bitartekoak erabiliko dituzten lizitatzailleek, erakunde horiekin dituzten harremanen izaera juridikoa edozein dela, Notarioak ziurtatutako idatzi bat aurkeztuko dute (**VI. eranskin**eko ereduaren arabera), eta honako alderdi hauek adieraziko dituzte kontratuan inplikatzaren diren enpresa horiek: lizitatzailleak parte hartzen duen lizitazioaren baldintzen eragina ezagutzen du(t)ela; aipatutako sailkapena dutela ☐ ziurtagiria aurkeztu behar da, **13. Klausulan** adierazten den moduan; eta aipatutako lizitatzaillea esleipendun suertatzen bada, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak uzteko borondate ezeztazina (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuko dute, eta bitartekorik ordezkatu edo aldatu behar bada, Administrazioak berariaz baimendu beharko du). Idatzia aurkezteak berekin ekarriko du DONOSTIA KULTURAK konpromiso hori onartzen duela, baldin eta dagokion lizitatzaillea esleipendun suertatzen bada.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen dituela Orri hau, Baldintza Teknikoen Orri osoa eta kontratuari lotutako gainerako dokumentazioa, inongo salbuespenik gabe.

Agiri hau eta baldintza teknikoen agiria kontratatzailearen profilaren bitartez eskura daitezke, honako webgune honetatik: <http://www.donostiakultura.com>.

Halaber, dokumentazio hori DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan aztertu ahal izango da (Konstituzio Plaza, 1 20003 Donostia), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epearen azken egunera arte.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailleek HIRU GUTUN AZAL ITXI aurkeztuko dituzte (A, B eta C) lizitatzen duen lote bakoitzaren kasuan (A gutun-azalaren kasuan izan ezik; bakarra izan daiteke, nahiz eta lizitatzaillea lote batera baino gehiagora aurkeztu) DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN bulego horietan, erregistro-ordutegiaren barruan (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; udan 9:00etatik 13:30era), horretarako GAO-n argitaratzen den lizitazio-iragarkian ezarritako epearen barruan. Gutun-azal horietan beranduago aipatuko den dokumentazioa sartuko dute eta guztietan jarriko dute xede den kontratazioa, lizitatzen den lotea, enpresaren izena, proposamenaren sinatzailearen izen-abizenak eta izaera, telefono-zenbakia eta fax-zenbakia, eta helbide elektronikoa. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten den bidea adieraziko da, orri honen **II. eranskin**eko ereduaren arabera.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Ordutegi muga hori ez da ezarriko proposamenak postaz bidaltzen badira. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko azken egunaren edozein ordutan aurkeztu ahal izango dira; betiere, ondoren datorren paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badira.

Lizitatzailleak proposamena postaz bidaltzen baldin badu, bidali duen eguna egiaztatu beharko du postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali duela adierazi beharko dio DONOSTIA KULTURARI data bereko telex, fax (ondorengo zenbakira: 943481189) edo presako telegrama bidez egun berean. Proposamena bidali izana posta elektronikoaren bidez ere adierazi ahal izango da (donostiakultura@donostia.org). Posta elektronikoaren bidez jakinarazteak baliorik izango badu, nahitaezkoa izango da jasota egotea bai jakinarazpenak bidali izana, bai jaso izana, bai haien eduki osoa; eta igorlea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzea.

Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratuko da, gero espedienteari eranstea.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, jakinarazpenean adierazitako epea igaro ondoren jaso ezean, dokumentazioa ez da onartuko.

Adierazitako dataren ondoren 10 egun natural igaro eta proposamena hartu ez bada, ez da inola ere onartuko.

Gutun-azal bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu, eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua jasoko du.

A gutun-azala.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

Enpresa lizitatzailleek kontratatze gaitasuna ziurtatzeko gutun-azal bat aurkeztuko dute, honako agiri hauekin: **Bi lote edo gehiagorako eskaintzak aurkeztu dituzten enpresa lizitatzailleek A gutun-azal bakar bat aurkez dezakete. Kasu horretan, honako dokumentazio hau erantsi behar dute:**

1. Lizitatzailleak eta, hala badagokio, haren ordezkariak jarduteko gaitasunaren ziurtagiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen kasuan, enpresako eskritura edo sorrera agiria, Estatutuak edo sorrera egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (dokumentu horietan zehazten dira jarduera arautzen duten arauak). Dokumentu guztiak dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridiko motaren arabera dagokionean.

- Europar Batasuneko kide diren estatuetakoen enpresa ez espainolei dagokienez, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, kasuan kasu Estatu legeriaren arabera dagokien Erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar da, edo zinpeko aitortpen edo ziurtagiri bat aurkeztu bestela, ezar daitezkeen Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.

- Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde esparruko kontsularen bulegoarena. Txosten

horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen kasuan, nortasun agiria nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko.

- Ordezkarri gisa aurkezten diren pertsonak, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta dagokien ahalorde nahikoa ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edo, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

- Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuek elkartearen eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaladun bakarria izendatu beharko dute. Ordezkarri edo ahaladun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, enpresaburuek ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

2. SPKLTBaren 60. artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen lizitatzailaren zinpeko aitorpena, **III. Eranskinean** azaltzen den ereduaren arabera.

Enpresa lizitatzailak indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatearen berariazko erantzukizunpeko aitorpena barne hartuko da. Eskaintza ekonomiko onuragarriena egiten duen enpresa lizitatzailak aipatutako baldintza betetzen duela ziurtatuko du, eta horretarako hamar egun balioduneko epea edukiko du, DONOSTIA KULTURAK xede horrekin bidaltzen dion errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita.

3. Eskaintza aurkezten den loteari/ei dago(zk)ion/en sailkapena indarrean dagoela ziurtatzen duen agiria (ikus **12. klausula**):

Estatuko Lizitatzaille eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak luzatutako ziurtagia aurkeztuko da, eta, horrekin batera, sailkapena indarrean dagoela ziurtatzen duen eta ziurtagiaren barne hartutako ezaugarriak aldatu ez direla ziurtatzen duen enpresaren aitorpen erantzulea aurkeztuko da. Esleipendun suertatuz gero, adierazpen hori kontratua formalizatzeko dokumentuan berretsiko da, kontratazio-organismoak, egokitzen jotzen badu, Lizitatzaille eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean kontsulta bat egiteko aukeraren kalterik gabe.

Ziurtapenak enpresa adierazitako multzoan eta azpimultzoan, eta eskatzen den kategorian edo maila goragoko batean, sailkatuta dagoela ziurtatuko du.

Ziurtapen horrekin, halaber, Klausula honen 1. Idatz-zatian adierazitako baldintzak ziurtatuko dira, hau da, enpresaren eta, hala badagokio, bere ordezkariaren jarduteko gaitasuna ziurtatuko da.

Ez dute sailkapena ziurtatu beharko Europar Batasuneko kide diren enpresa ez-espainolek. Europar Batasuneko kide diren enpresa ez-espainolek Orri honetan zerbitzuen kontratistaren sailkapen lortzeko beharrezkoak diren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dituela ziurtatuko dute.

4. Kontratua gauzatzeko **12. Klausulan** adierazitako giza bitartekoak atxikitzeko konpromisoa.

Konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLTBaren 223. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Hortaz, berori urratuz gero, DONOSTIA KULTURAK kontratua deuseztatzeko eskubidea izango du.

5. Enpresa atzerritarrek Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioa onartzen dutela adierazten duen berariazko aitorpena aurkeztu behar dute, kontratua garatzean zuzenean zein zeharka izan daitezkeen gorabehera guztietarako; edozein kasutan, uko egiten zaio enpresa lizitatzailari dagokion foru atzeritarrari.

6. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, orri honen **II. eranskin**eko ereduaren arabera.

7. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzeari buruzko erantzukizunpeko aitorpena, **V. eranskin**aren arabera.

Oharrak:

- (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala arautzen duen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden enpresa lizitatzailak, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, 1. idatz-zatian aipatutako dokumentazioaren ordeiz.
- (ii) DONOSTIA KULTURAK eskubidea du lizitatzailak aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko.
- (iii) Atzerriko enpresek dokumentazio guztiaren gaztelaniarako edo euskararako itzulpen ofiziala aurkeztuko dute.

B gutun-azala – "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Enpresa lizitatzailak gutun-azal bat aurkeztuko dute, lote bakoitzerako gutun-azala independente batean, dokumentu hauekin:

- a) Memoria teknikoa, honako alderdi hauek barne hartuta:

a1.- Eskainiko diren zerbitzuen zerrenda laburra. **3 folio gehienez ere.**

a2.- Barne-eraginkortasunaren plana DONOSTIA KULTURAK beharrezkoak dituen laguntza-langileen zerbitzuak eskaintzeko; enpresaren ordezkariak, enpresak kontratua gauzatzeko atxikitzen dituen lokal eta instalazioen egitura (bereziki aipatuko dira Gipuzkoako probintzian daudenak), erantzuteko denborak, komunikazio-bideak eta abar. **2 folio gehienez ere.**

a3.- Adierazitakoaz gain, 1. LOTEKO lizitatzailerek beren memoria teknikoan barne hartuko dute zerbitzua eskaintzeko gizonezko eta emakumezkoen uniformeak, xede horrekin Baldintza Teknikoen Orrian adierazten diren baldintzak kontuan hartuta. Bi modalitateen diseinua eta deskribapen laburra gehitu beharko dira, kontratua formalizatu aurretik uniforme bakoitzaren lagin bana aurkeztearen kaltetan izan gabe. Nolanahi ere, uniformeek DONOSTIA KULTURAREN oniritzia izan beharko dute. **4 folio gehienez ere.**

a4.- 4. LOTERAKO lizitatzen bada, norbera babesteko ekipoak barne hartuko dira eskatzen diren zerbitzuak eskaintzean lan-arrisuak prebenitzeko. **4 folio gehienez ere.**

a5.- 1. eta/edo 4. LOTEETARAKO lizitatzen bada, dagokien lana egiteko behar diren ekipoen zerrenda bat aurkeztuko da eta linternak eta langileen artean komunikatzeko walkie-ak edo antzeko komunikazio-sistemak adieraziko dira. **4 folio gehienez ere.**

b) Lizitatzailak honako gai hauen inguruan planteatzen dituen hobekuntzak, DONOSTIA KULTURARENTZAT kostu gehigarriak eragin gabe:

- Jendearen arretarako zereginetan (adibidez, gatazkak kudeatzeko eta konpontzeko prestakuntza) kontratua gauzatzeari atxikitako langileen prestakuntza.

c) Bere eskaintza hobeto ulertu eta baloratzeko lizitatzailak egokitzen jotzen duen dokumentazio oro.

DONOSTIA KULTURAK eskubidea du lizitatzailak aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko.

Ez da onartuko/aztertuko adierazitako egitura betetzen ez duen memoria teknikorik.

Gutun-azal honen dokumentazioa jatorrizkoa edo kopia sinplea izan daiteke. Hala ere, DONOSTIA KULTURAK, eskaintzak baloratzeko orduan, lizitatzailari jatorrizkoak eskatu ahal izango dizkie, aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatzeko.

C gutun-azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Enpresa lizitatzailleek proposamen ekonomikoa aurkeztuko dute, **lote bakoitzerako gutun-azal bereizian**, eta proposamen hori Orri honen **IV. eranskineko** ereduaren arabera izango da.

Proposamen desagoki edo irregular bat antzemanaz gero, eskaintza egin duen lizitatzailari audientzia emango zaio, eskaintzaren balorazioa justifikatzeko eta baldintzak zehazteko.

Ondorio horietarako, DONOSTIA KULTURAK neurriz kanpokotzat edo ohiz kanpokotzat jo dezake eskaintza bat, baldin eta lanbide-kategorien arabera gutxieneko soldata-kostuen prezioaren azpitik badago, kontratua gauzatzeko aplikatzeko den hitzarmenaren arabera.

DONOSTIA KULTURAK, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, A, B eta C gutun-azalean aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du, baita baldintza teknikoan orrian eskatutakoena ere. Enpresak aurkeztutako datuetan edo zirkunstantzietan faltsutasunik aurkitzen bada, kontratua/k baliogabea izan daite(z)ke, enpresa esleipendunari berari egozteko moduko arrazoen ondorioz kontratua ez betetzeagatik.

Behin kontratua esleitu eta urtebeteko epea amaitzen denean, DONOSTIA KULTURAK lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake, baldin eta lizitatzailleek ez badute jaso.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Honakoak balorazio-irizpideak eta dagokien haztapena, lote bakoitzerako zehaztuta:

1. Lote bakoitzaren proposamen teknikoak: 55 puntu gehienez ere; gutxienez 25 puntu lortu behar dira.

a) Memoria teknikoak: 50 puntu gehienez ere.

b) Lizitatzailleak aurreko **13. Klausulan** adierazitako gaiarekin lotuta planteatzen dituen hobekuntzak, DONOSTIA KULTURARENTZAT kostu gehigarriak eragin gabe: 5 puntu gehienez ere.

2. Lote bakoitzaren proposamen ekonomikoa: 45 puntu gehienez ere.

Honela baloratu dira lote bakoitzaren kasuan:

$$P = 45 \times \frac{\text{Gutxieneko eskaintza}}{N \text{ eskaintza}}$$

Non:

P = Baloratzen ari den enpresa lizitatzailleak lortutako puntuazioa.

Gutxieneko eskaintza = eskaintza txikienaren zenbatekoa.

N eskaintza = baloratzen ari diren eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa.

Ondorio horietarako, DONOSTIA KULTURAK neurriz kanpokotzat edo ohiz kanpokotzat jo dezake eskaintza bat, baldin eta lanbide-kategorien arabera gutxienezko soldata-kostuen prezioaren azpitik badago, kontratua gauzatzeko aplikatzekoa den hitzarmenaren arabera.

Ondorio horietarako, proposamen desegoki edo irregular bat antzemanaz gero, eskaintza egin duen lizitatzailerari audientzia emango zaio, eskaintzaren balorazioa justifikatzeko eta baldintzak zehazteko.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- DONOSTIA KULTURAKo Kontratazio Ataleko ordezkari bat.
- DONOSTIA KULTURAKo Festen Ataleko zuzendari teknikoa.
- DONOSTIA KULTURAKo Ekoizpen Zuzendaria.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak lote bakoitzari dagokion A gutun-azaleko ("Kontratatzeko gaitasuna") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik eta behin, garaiz eta eraz. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik edo ez-egiterik antzemanaz gero, hiru egun balioduneko epea utziko da, gehienez ere, enpresa lizitatzailerak akats edo ez-egite horiek konpontzeko.

Ondoren lote bakoitzaren B gutun-azala irekiko da. Bertan gordetzen da proposamen teknikoa, eta beraren azterketa eta balorazioa egingo da.

Lote bakoitzeko C gutun-azaleko proposamen ekonomikoa irekitzea jendaurrean egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen publikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaie onartutako enpresa lizitatzailerak guztiei, **II. eranskinaren** arabera jakinarazpenak egiteko aukeratu duten bitartekoa erabiliz. Kontratatzaileraren profilean argitaratuko da guztia (www.donostiakultura.com) 48 ordu lehenago, gutxienez.

Lote bakoitzaren proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoaren balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren enpresa lizitatzailerari, betiere horrela egiteko eskatzen badute.

Lote bakoitzaren proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitzean, proposamenak aztertu eta baloratuko dira.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO aurrerantzean) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako arrazoieta nahastuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztu diren proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, handienetik txikienera sailkatuak, eta **14. klausulan** ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Era berean, ekonomikoki eskaintza abantailatsuena zein den adieraziko du.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamena txosten juridikoaren pean jarriko da.

Ebaluazio Batzordeak proposamen ekonomiko abantailatsuena identifikatzeak ez du eskubiderik sortzen proposatutako enpres(ar)en alde.

17. KONTRATUAK ESLEITZEA

Lote bakoitzean, esleipenerako enpresa lizitatzailerak aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu beharko du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio eskaintza ekonomiko abantailatsuena egin duen enpresa lizitatzailerari, eta enpresa lizitatzailerak hamar egun balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzen duten agiriak.

Esleipendunak EJZn, kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela frogatu beharko du. Horretarako, alta-agiria aurkeztu beharko du, une horretako ekitaldiari baldin badagokio, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Edozein modutan, aipatutako zergan baja hartu ez dela ziurtatzen duen erantzukizunpeko aitorten bat aurkeztuko da.

- Kontratua gauzatzeko hitz emandako giza baliabideak benetan esleitu izanaren egiaztatzeak.

Orri honetako 12. Klausulan aipatzen dien kontratua gauzatzeko hitz emandako giza baliabideak eskaintzeko modua duela ziurtatzeko (kontratuaren arduraduna barne hartuta), esleipendunak ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Kontratuaren arduradunaren eta kontratua gauzatzeko lizitatzailerak atxikiko duen talde zehatzaren izenak adieraziko dira, honako datuak adieraziko dituzten Curriculum vitaeko fitxekin batera:
 - Titulazio akademiko ofiziala.
 - Hizkuntzak ezagutzea (baldintza teknikoen orrian profil bakoitzaren kasuan adierazitako terminoetan): ahosko eta idatzizko maila eta titulazio ofizialak adieraziko dira, Baldintza Teknikoen Orrian adierazitakoaren arabera.
 - Esperientzia eskatzen diren zerbitzuak edo antzekoak eskaintzen.
- Horiek badituztela egiaztatzen duten agiriak.

- Orri honen **11. Klausulan** aurreikusitako behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen frogagiria.

Eskatutako guztia epearen barruan betetzen ez bada, enpresa lizitatzailleak/ek bere/n eskaintza atzera bota du(t)ela ulertuko da; kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio/e hurrengo enpresa lizitatzailari/ei (lote bakoitzean eskaintzen sailkapenaren arabera aukeratuko dira lizitatzailleak).

Kontratazio Organoak kontratu(ar)en esleipena adostuko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan eta proposamenak irekitzen direnetik gehienez ere bi hilabeteko epean.

Lote bakoitzaren esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du erakunde kontratugile bakoitzaren Kontratazio Organoak, eta lizitatzailari jakinaraziko zaie, Orri honen **II. Eranskin**eko ereduaren arabera eta, aldi berean, DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

18. KONTRATUAK HOBETZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratuak formalizatzean hobetuko dira.

Kontratuak formalizatu aurretik, esleipendunak/ek honako dokumentazio hau aurkeztuko du/te:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia argitaratzeagatik sortutako gastuak ordaindu izana ziurtatzen duen egiaztagiria. Esleipendun bat baino gehiago egonez gero, faktura proportzionalki banatuko dute, bakoitzari esleitutako loteen balio zenbatetsiaren arabera.
- Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkartearen lege sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.
- Aseguru-entitatearen ziurtagiria, **VII. Eranskin**etan jasotako ereduaren arabera.

Kontratuak formalizatzeko, lizitatzailari esleipenaren jakinarazpena bidali eta hamabost egun balioduneko epea igaro eta gero, DONOSTIA KULTURAK kontratua formalizatzeko eskaera bidaliko dio/e esleipendunari/ei. Esleipendunak dokumentu pribatu bat landu beharko du, aipatutako eskaera jaso eta biharamunetik hasi eta hurrengo bost egun naturalen barruan.

Enpresa esleipendunak/ek, halere, kontratuak eskritura publiko bilakatu daitezen eskatu ahal izango du/te; kasu horretan, bere/n kontura izango dira sortutako gastuak.

Behar adina kontratu egingo da, kontratuen xede diren loteen esleipen suertatu den enpresa lizitatzailaren arabera, eduki berarekin, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA SA sozietateekin.

Kontratuen formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da. Argitalpena kontratua esleitzen denetik berrogeita zortzi egun naturaleko epean egingo da, gehienez ere.

Enpresa esleipendunaren kontura izango dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kontratuen formalizazioaren iragarkiak argitaratzeagatik sortutako gastuak. Enpresa esleipendun bat baino gehiago egonez gero, faktura proportzionalki banatuko dute, bakoitzari esleitutako loteen balio zenbatetsiaren arabera.

Esleipendunari egoztekoak diren kausen ondorioz, adierazitako epearen barruan kontratuak formalizatuko ez balira, DONOSTIA KULTURAK hurrengo lizitatzailari/ei errekerimendua egin ahal izango dio/e (eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera) agiri honen **17. klausulan** eskatutako dokumentazioa aurkez dezan, eta hamar egun balioduneko epea emango dio horretarako.

19. KONTRATUEN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduradun bat izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuen arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, DONOSTIA KULTURARI lotutakoa edo kanpokoa.

Enpresa esleipendunak nahitaez beteko ditu kontratuen arduradunak ematen dituen jarraibideak.

20. KONTRATUAK GAUZATZEA

Hain zuzen ere, jarraian adierazi dira kontratuak gauatzeko kontuan hartuko diren baldintzak:

- Kontratuak enpresa esleipendunaren arriskuz eta ausaz gauzatuko dira.
- Kontratuak gauatzeko kontuan hartuko dira kontratuen edukia eta baldintzak, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orria, Baldintza Teknikoen Orria eta enpresa esleipendunak/ek aurkeztutako eskaintza/k, eta DONOSTIA KULTURAK ematen dituen jarraibideen arabera egingo da.
- DONOSTIA KULTURAK kontratu betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar den bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen dituen kanpo laguntzak jaso ahal izango ditu, kontratu betebeharrak behar bezala betetzen direla eta lanak kalitate maila egokiaz egiten direla egiaztatzeko edo ikuskatzeko.

- Enpresa esleipendunak/ek DONOSTIA KULTURAK zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion/en datu guztiak aurkeztuko ditu/zte, beharrezkoa den laguntza guztia

eskainiko du/te, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio, edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du/te.

- Enpresa esleipendunak/ek ez du/te oztoporik jarriko DONOSTIA KULTURAK egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.
- Enpresa kontratugileak/ek zerga esparruan eta lan esparruan indarrean dauden xedapenak beteko ditu/zte, bai eta Gizarte Segurantzaren eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren esparruan indarrean daudenak ere, zerbitzua gauzatzeko erabiliko diren langileei dagokienez. Xede horrekin, langileek arlo horretan beharrezkoak dituzten prestakuntza ikastaroak eskainiko ditu.
- Enpresa esleipendun(ar)en ardura da, halaber, langileek segurtasun, higiene eta laneko osasunaren alorretan indarrean dagoen araudia betetzen du(t)ela eta Kontratazio Organoak funtzionamendu orokorrerako ezar dezakeen araudia betetzen du(t)ela ziurtatzea.

Langile guztiak enpresa esleipendunaren mendekoak dira. Enpresa esleipendunarenak dira bere enpresa izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio DONOSTIA KULTURARI erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Enpresa esleipenduna/k izango d(ir)a arduradun bakarra/k zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileekin -langile propioekin edo noizean behinka azpikontratatzeko direnekin- lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). DONOSTIA KULTURAK ez du lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ez eta Gizarte Segurantzarekin edo zerga-esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, enpresa kontratugileak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrak dagokienez. Modu berean, enpresa esleipendunak/ek bere/n gain hartuko ditu/zte zerbitzua eskaintzean gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak.

- Enpresa esleipendunak/ek 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak eta Datu Pertsonalak Babesteko denak (DBLO aurrerantzean), eta berau garatzeko araudiak ezarritako betebeharrak beteko ditu/zte, datu pertsonalik erabiltzen badu/te. Hala izanda, kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak, bere jardueren esparruan, egiten duen datu pertsonalen edozein tratamendu, eta tratamendu horren Arduradun den aldetik, bere kontura eta bere erabakiz egiten duela ulertu behar da, Orri honen **22. klausulan** berariaz ezartzen dena kontuan hartu gabe.

Bereziki eta izaera mugatzailerik gabe, enpresa esleipendunak/ek betebeharrak batzuk bete beharko ditu/zte, DONOSTIA KULTURAREN aldeko kontratazio honen xede den zerbitzugintzara atxikitako langileen datuak lagatzen dituen aldea den neurrian (betiere interesdunek aldeztu aurretik onartu eta gero).

- Edozein kasutan, enpresa esleipendunak/ek lana ondo eta kontratuaren hitzartutako epeen barruan egiteko beharrezkoak diren tresneria eta bitarteko osagarriak jarri beharko ditu/zte, eta bere/n betebeharrak betetzeko behar ditu(zt)en langileak kontratatatu beharko ditu/zte. Kasu horretan, lanaren eta

segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu/zte beren ardurapeko langileekin

21. FUNTSEZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Honakoak funtsezko kontratu-betebeharrak:

- Eskatutako laguntza-langileen zerbitzuak eskaintzea, eragiketa-fitxan zehaztutako baldintzen eta Baldintza Teknikoen Orrian aurreikusitakoaren arabera.
- Ahalik eta denbora gutxienean premiazkotasunez eskatzen diren giza bitartekoak DONOSTIA KULTURAREN esku uztea.
- Kontratura Baldintza Teknikoen Orriko **4. Klausulan** adierazitako giza baliabideak, gutxienez, atxikitzea.
- Kontratura Gipuzkoako probintzian bulego edo ordezkari bat atxikitzea.
- Enpresa esleipendunak proposatu eta DONOSTIA KULTURAK onartzen duen uniforme-eredua erabiltzea, 1. loterako Baldintza Teknikoen Orrian adierazitakoaren arabera.
- Zerbitzua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak bere kontura lortzea. Era berean, enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeko egin beharreko gastuak, bai eta jarduera gauzatzeagatik dagozkion tasa eta zerga mota guztiak ere; halaber, bere gain hartuko ditu kontratua indarrean dagoen bitartean berori gauzatzeagatik ondoriozta daitezkeen betebeharrak guztiak.
- Orri honen **24. Klausulan** adierazitako aseguru polizak eduki eta mantentzea.
- Kontratua gauzatzeko atxikitako langileen oinarritzko lan eskubideak bete eta ziurtatzea. Zehazki, indarrean dagoen laneko araudiaren arabera eskatzekoak den haien ordainsaria eta beste edozein gastu sozial edo laboral ordaintzea.
- Edozein arrazoiengatik Kontratuaren Arduradun berri bat izendatu behar bada, DONOSTIA KULTURAK onartzea.
- Langileak ordezkatzeko, betetzen duten eginkizuna eta denbora edozein dela, dagokien lana behar bezalako arduraz eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, DONOSTIA KULTURAK agindutako arau orokorrak betetzen ez badituzte, zerbitzuak egitean ardura nahikoa ez badute edo dagokion lotearen kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. Donostia Kulturak errekerimendua egiten duenetik gehienez ere hogeita lau orduko epean egingo da ordezkapena, kasu larrietan edo oso larrietan izan ezik eta gertaeraren ezaugarriak direla-eta ordezkapena berehala egin behar den kasuetan. Langileak ordezkatzeko DONOSTIA KULTURAK onartu beharko ditu eta DONOSTIA KULTURAK berak ez du erantzukizunik hartzen bere gain, enpresa esleipendunak langile horiekin dituen harremanei dagokienez.

- DONOSTIA KULTURAREN oniritziarekin langileak ordezkatzeko gaixotasun, opor, baimen, lizentzia, istripu eta abarregatik izaten diren bajak estaltzeko; kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez egingo direla ziurtatuta. Gehienez ere hogeita lau orduko epean egin beharko ditu ordezkapenak.
- Enpresa esleipenduna DONOSTIA KULTURAKo produktu, obra edo zerbitzuen hornitzaile edo eragile gisa agertzeko debekua, eta dokumentazioan edo ezagutzera emateko edo publizitatea egiteko balio dezakeen edozein bitartekotan agertzeko debekua, DONOSTIA KULTURAK berariaz baimentzen duenean izan ezik.

Klausula honetan barne hartutako betebeharrak kontratu betebeharren izaera izango dute SPKLTBaren 223. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke, DONOSTIA KULTURAK nahi badu.

22. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Kontratazio honen xede den zerbitzugintzak, zerbitzuen edukia kontuan izanda, eska lezake: (i) enpresa esleipendunak/ek datu pertsonalak tratatzea, DONOSTIA KULTURAREN kontura eta/edo Tratamenduaren Arduradun gisa jarduten duten beste entitate batzuen kontura; eta/edo (ii) enpresa esleipendunak DONOSTIA KULTURA arduradun edo tratamenduaren arduradun deneko fitxategiei gaineratutako datu pertsonalak eskuratzea.

Testuinguru horretan, enpresa esleipendunak/ek berariaz aitortuko du badakiela nahitaez bete behar duela DBLOn adierazitakoa (batez ere 9., 10. eta 12. artikuluetan adierazitakoa), 1720/2007 Errege Dekretuan (DBLOA aurrerantzean), abenduaren 21ekoa eta DBLO garatzeko araudia onartzeko denean, adierazitakoa eta aipatutako arauak garatzen dituzten gainerako xedapenetan adierazitakoa.

Testuinguru horretan, DBLOren arabera, enpresa esleipendunak/ek, tratamenduaren arduradun gisa, obligazioa du/te DONOSTIA KULTURAREkin datuak eskuratzeko dagokion kontratua hitzartzeko, DBLOren 12. artikuluan eta DBLOAREN 20. artikuluan adierazten den edukia eta eragina barne hartuta.

Datuak eskuratzeko kontratu hori/ek DONOSTIA KULTURAK eta enpresa esleipendunak/ek lizitazio honen xede den kontratua sinatzen duten unean hitzartuko da eta eranskin gisa aurkeztuko da.

Edonola ere, eta datuak eskuratzeko kontratuan ezartzen dena alde batera utzita, enpresa esleipendunak/ek kontratatuz honen xede diren zerbitzuak egiteagatik sortzen diren betebeharrak beteko ditu/zte:

- DBLOn, DBLOAn eta kontratua esleitzen den unean edo kontratuaren indarraldiak irauten duen bitartean indarrean dauden gainerako garapen-arauetan xedatzen dena.

DBLOren 5. eta 6. artikuluetan aurreikusitako interesdunari informazioa emateko eta baimena lortzeko betebeharrak.

Ondorio horietarako, beharrezkoak dituen bitartekoak erabiliko ditu (adib.: klausula informatzaileak formularioetan eta interesdunei

dagokienez erabili beharreko dokumentuak eta abar), eta honako hau adieraziko da: (i) datuen tratamendua DONOSTIA KULTURAK egiten duela; (ii) orri honen xede diren zerbitzuak eskaintzean jasotako datu pertsonalak DONOSTIA KULTURAREN titulartasuneko fitxategi batean gordeko direla; eta (iii) ondorioz, DONOSTIA KULTURA izango dela tratamendu horren arduradun bakarra eta eskusiboa eta enpresa esleipenduna, berriz, tratamenduaren arduraduntzat joko da.

- Kasuan-kasuan segurtasun-neurriak hartuko ditu, DBLOAn aurreikusitakoaren arabera.
- DONOSTIA KULTURAK eskatzen badu, DONOSTIA KULTURAK eta/edo datuen tratamenduaren arduradun den erakundeak tratatzen dituzten datuen eta erakunde horrek emandako dokumentazioaren konfidentzialtasuna eta integritatea ziurtatzeko hartutako neurriak deskribatzen dituen memoria bat aurkeztea.
- Segurtasun-neurri horiek gauzatzeaz eta gainbegiratzeaz zuzenean zein zeharka arduratzen den pertsona edo pertsonak jakinaraztea DONOSTIA KULTURARI.
- Langileei datuen babesari buruz indarrean dauden arauen ondoriozko betebeharren berri ematea.
- Enpresa esleipendunak/ek zein lizitazio honen xede den kontratuan parte hartzen duten langileek kontratuaren indarraldian ezagututako datu pertsonalen sekretu profesionala gordetzeko betebeharra dute.

23. KONFIDENTZIALTASUNA

Esleipenaren publizitateari dagokionez eta enpresa lizitatzailerei eman beharreko informazioari dagokionez Orri honetan xedatzen denaren kalterik gabe, DONOSTIA KULTURAK ezin izango du zabaltu enpresa lizitatzailerek konfidentzialtzat jo duten informazioa, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik duenean.

Enpresa esleipendunak/ek, bere/n aldetik, kontratuak gauzatzeko eskuratzen du(t)en informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du/te, baita Orrietan izaera hori ematen zaion informazioa eta berez konfidentziala dena ere.

Konfidentzialtasunak iraupen mugagabea edukiko du.

24. ASEGURUAK

1. Enpresa esleipendunaren ardura izango dira kontratuen gauzatzean eragindako kalte eta galera guztiak, izaera eta bolumena edozein delarik.

Kontratuetan ezarritakoa gorabehera, enpresa esleipendunak/ek jarraian adierazi diren polizak kontratatuko ditu/zte bere/n kontura, kontratuak irauten duen bitartean izan daitezkeen gertaerak estaltzeko:

- a) Erantzukizun Zibileko aseguru, kontratua gauzatzean hirugarren pertsonen eta horien ondasunen gainean eragindako kalte eta galeren ondoriozko erantzukizuna estaltzeko.
- b) Aseguru horrek gutxienez ustiapen bermea edo berme orokorra, patronala eta defentsa eta finantzen bermea barne hartuko ditu.
- c) Aseguru horren bermeen kalte-ordainetarako muga ez da 600.000 euro baino gutxiago izango ezbehar bakoitzagatik. Erantzukizun Zibil Patronalaren kasuan, biktima bakoitzagatik muga ez da 150.000 euro baino gutxiago izango.
- d) Esleipendunak kalteak eragiten baditu DONOSTIA KULTURAREN edo bere ondasun edo langileen gainean, polizan kalte ordaina jasoko duten hirugarrenen multzoan sartuko dira. Kalteak beste edozein hirugarren bati, DONOSTIA KULTURARI edo bere ondasun edo langileei eragiten bazaizkie, aseguraturatzen joko dira guztiak erantzukizun zibilaren polizaren barruan.

Edonola ere, enpresa esleipendun(ar)en kontura izango dira aseguru bakoitzaren frankizien zenbatekoa eta ezbeharrengatik ordaindu beharrekoa, bai eta ezbeharren zenbatekoa ere, aseguru polizan ezarritako mugak gainditzen diren kopuruan. Era berean, bere kontura izango dira polizak estaltzen ez dituen hirugarrenentzako kalte-ordainak eta kalteak.

Enpresa esleipendunak/ek, kontratuak sinatu aurretik, erantzukizun zibilaren aseguratzaileraren ziurtagiria aurkeztuko du(te), "Aseguru-entitatearen Ziurtagiria" izeneko **VII. eranskineko** ereduaren arabera.

2. Enpresa esleipendunak/ek bere/n kontura mantenduko ditu/zte jarraian adierazitako estaldurak, kontratua gauzatzen den bitartean, gutxienez, eta egin beharreko lanetarako eta/edo zerbitzuetarako:

- Enpresa esleipendunak/ek Gizarte Segurantzaren alta emanda edukiko dituzte, indarrean dagoen araudiaren arabera, kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaintzen parte hartzen duten pertsona guztiak. Halaber, kasuan-kasuan sektoreko hitzarmenetan zehaztutako Bizitza eta Istripu Aseguruetako eskakizunak beteko ditu/zte.
- Enpresa esleipendun(ar)en kontura izango dira edozein parte-hartzailearen instalazio, makina, tresneria eta ondasunen gainean eragindako kalteak, kalte pertsonalak barne hartuta.

3. Aipatutako aseguruen kontratazioak ez ditu mugatuko enpresa esleipendunak/esleipendunek gainerako kontratuzko zehaztapenen arabera bere gain hartu dituen/dituzten betebeharrak eta erantzukizunak. Kontratugilearen erantzukizun primarioa eta zuzena ere ezingo da murriztu, arindu edo aseguratzaileraren baldintzetara edo jardunetara subrogatu.

4. Kontratuak irauten duen bitartean, DONOSTIA KULTURAK esleipendunari/ei eskakizunak/lehen aipatutako aseguruen dokumentazioa aurkezteko, edo polizen

kopia aurkezteko. Halaber, primen ordainketa egunean duela ziurtatzeko eska dakioko/eke, eta esleipendunak/ek eskaera betetzeko betebeharra du/te.

5. Aseguru propioak kontratatzeako baldintzak urratzea, lehen aipatutakoa kontuan hartuta eta DONOSTIA KULTURAK adierazita, kontratu hutsegite larritzat joko da eta DONOSTIA KULTURAK eskubidea du kontratatu gabe dauden aseguruak kontratatzeako, enpresa esleipendun(ar)en kontura eta kargura, DONOSTIA KULTURAK ezarritako epeen barruan.

25. ZIGORRAK

Lote bakoitzaren enpresa esleipendunak/ek, berari/beraiei egotz dakizkiokeen/dakizkiekeen arrazoiak medio, kontratatutako zerbitzuen gauzatze akastuna egiten badu/te edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu/te, DONOSTIA KULTURAK kontratuak deuseztatzea erabaki dezake, agiri honetako **31. klausulan** adierazitako baldintzen arabera, edota kontratuak gauzatzen jarraitzea erabaki dezake. Azken kasu horretan, DONOSTIA KULTURAREN alde, eguneko 300 euroko zigorra sortuko da. Zigorrek zinez eragiten diren kalte eta galerekiko metagarriak izango dira.

Kontratuak gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, eta ez betetzeak iraun bitartean, DONOSTIA KULTURAK edozein unetan deusezta dezake kontratua, lehen adierazitako ondorioekin.

Zigorrek gauzatzeko, kenkariak egingo dira kasuan-kasuan lotearen enpresa esleipendunari ordaindu beharreko kopuruan, eta, hori ezinezkoa bada, behin betiko bermearen gainean. Kasu horretan, behin betiko bermeaz gainekeo kopurua erreklamatu egingo da behin betiko bermea gainditzen duen kopurua.

Edozein modutan, kontratua bertan behera utzi zein jarraitu erabaki, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen duen denboran hirugarrenen bitartez zerbitzua eskaintzen jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, enpresa esleipendunak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte galerei eta Klausula honetan aurreikusitako ondorioei kalterik egin gabe.

26. KONTRATUA LAGATZEA

Ezingo dira inola ere kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga.

27. AZPIKONTRATAZIOA

Ezingo dira inola ere azpikontratatu kontratuaren xede diren prestazioak.

28. KONTRATUAK ALDATZEA

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLTBaren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

29. ENPRESA ESLEIPENDUN(AR)EN ERANTZUKIZUNA

Enpresa esleipenduna/ek izango du/te egiten ditu(zt)en lanen eta eskaintzen ditu(zt)en zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten ditu(zt)en utzikieriek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko ondorioek DONOSTIA KULTURARI edo hirugarren batzuei eragin diezazkiekeen ondorioena ere.

Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz, hirugarrenei eragin ahal zaizkien edo langileek jasaten dituzten kalte eta galera guztien kalte-ordainak enpresa esleipendunak/ek ordainduko ditu/zte.

Enpresa esleipendunak/ek erantzungo du/te langileek DONOSTIA KULTURAREN instalazioetan zein materialetan eragindako narriadura edo kalteen aurrean, eta bere/n kontura izango dira egin beharreko konponketak edo aldaketak.

Enpresa esleipenduna/k d(ir)a erantzule kontratuaren xede den zerbitzuko langileen betebeharren gainean, langile propioak edo enpresa azpikontratutako langileak izan, eta horien kontura izango dira langile horien ordainsariak eta bestelako gizarte- edo lan-gastuak. DONOSTIA KULTURA ez da inoiz erantzule izango enpresa esleipendunak/esleipendunek langileekiko dituen/dituzten betebeharren aurrean. DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik edukiko, enpresa esleipendun(ar)en ordezkarien, horien lankideen edo horiekin batera lan egiten duten pertsonen egiteen edo ez-egiteen ondorioz hirugarren pertsonen gainean eragiten diren kalteen aurrean.

30. KONTRATUAK ETETEA

DONOSTIA KULTURAK kontratuen etetea adosten badu, edo etetea SPKLTBaren 216. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutakoa aplikatzeagatik egiten bada (kasu honetan berariaz aplikatzekoa da), dagokion Akta egingo da. Idatzi horretan, etetea eragin duten arrazoiak eta kontratuaren egoera adieraziko dira.

Behin kontratua etetea erabaki eta gero, DONOSTIA KULTURAK enpresa esleipendunari jasan dituen kalte eta galerak ordainduko dizkio.

31. KONTRATUAK DEUSEZTATZEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLTBaren 223. artikuluko a) -85. artikuluan xedatutakoa kaltetu gabe-, b), d), f), g) eta h) hizkietan adierazitakoak eta 299. artikuluan adierazitakoak eta, oro har, kontratuzko edozein betebeharratzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako edozein kasutan, automatikoki egingo da suntsiarazpena; nahikoa izango da DONOSTIA KULTURAK enpresa esleipendunari/ei jakinarazpena bidaltzea.

Horrez gain, dagozkion kontratuen likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian xedatzen denaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua suntsiaraztean eta dagozkion dokumentazioa eta lanak aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, DONOSTIA KULTURAK hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Ezeztatzen bada, enpresa esleipenduna/ek benetan egin ditu(zt)en lanen prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du/te, hasiera batean.

Enpresa esleipendunari/ei egotzi ahal zaizkion/en arrazoiengatik indarrrik gabe uzten bada kontratua, lote bakoitzaren kontratuaren balio zenbatetsiaren % 20 pareko kantitatea zergapetuko da DONOSTIA KULTURAREN alde, izaera metagarriarekin, kasuan-kasuan ordaindu beharreko kalte eta galeren ordainez gain.

Bi kopuru horiek behin betiko bermetik eta enpresa esleipendunari ordaintzeke dagoen kopurutik kenduko dira eta, hala badagokio, soberan geratzen den kopuruaren gainean erreklamazioa egingo da.

32. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuek izaera pribatua dute, eta kontratuak prestatzeko eta esleitzeko Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian xedatutakoa beteko da, eta bertan aurreikusten ez denari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginari buruzkoa denean adierazitakoa (esleipen-boterea duten eta herri-administrazioa ez diren sektore publikoko erakundeen artean egindako SPKLTB horren II. Eranskinaren 17tik 27rako kategorietan sartutako zerbitzu-kontratuatarako).

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honakoek arautuko dute kontratua: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orri honek eta Baldintza Teknikoen Orriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, SPKLTBaren I. liburuko V. tituluaren kontratuak aldatzeari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio kontratuari.

Horrez gain, SPKLTB, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa eta urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoa, zati batez garatzeko dena, eta HAKLEO aplikatzekoak izango dira Orri honek testu arauemaile horietara espresuki jotzen duenerako.

33. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenak izango du kontratuaren ondorioei eta kontratua betetzeari eta iraungitzeari dagokionez bi alderdien artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

Kontratazio-esparruko errekurso berezia SPKLTBako 40. eta ondorengo artikuluetan aurreikusitakoaren arabera aurkeztuko da.

Aipatutako errekurso berezia ezarriko da Euskadiko Kontratuen inguruko Errekursoen Organoaren aurrean, DONOSTIA KULTURAREN kontratatze barne-jarraibideetan eta SPKLTBaren 41. artikuluko 4. eta 5. idatz-zatietan aurreikusitakoaren arabera.

Jurisdikzio-ordena zibilak izango du kontratuaren ondorioei eta kontratua betetzeari eta iraungitzeari dagokionez bi alderdien artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

Kontratuarekin lotuta gai eztabaidagarria sortzen bada, aldeek Donostiako jurisdikzioko Epaitegiek eta Auzitegiek diotena beteko dute.

Donostia, 2015eko uztailaren 1ean



Miren Azkarate Villar
2016 Hiriburutzako, Kulturako, Euskarako eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria

IFK-CIF
Q20005
411
6634n
VI
2009-
11

